

s o s l a i a

Jose Maria Satrustegi Zubeldia, Luisa eta Pedro Miiguelen semea, Arruazun jaio zen, 1930eko azaroaren 15ean. Sei anaia-arrebaren artean zaharrena. Iruñeko apaizgaitegian egin zituen ikasketak, eta 1955ean meza eman zuen. Luzaiden eta Urdiainen ibili zen erretoire, eta orain Arruazun hartu du erretiroa. Jaiotetxearen aitzinean dagoen etxe berriago batean bizi da egun.

Meza eman eta bi urtera egin zuten Euskaltzaindiko urgazle, eta 1963az geroztik euskaltzain osoa da. 1978 eta 1992 urteen bitartean Euskaltzaindiko idazkaria izan zen. Egun, kargu guziak utziak ditu. «Hileroko bilera eta onomastikako batzordea; eta gutxi gehiago. Orain nik nahi dut nire denbora, nire gauzatxoetan aritzeko».

Nafarroako Kultura Kontseiluko eta Euskara Kontseiluko kide izan zen, eta bietatik atera zen euskarazko irratiei lizentziak ez emateagatik. «Toki bakoitzean eta parada dudanean euskararen defentsan atera naiz. Beste batzuk, euskaltzale izan arren, isiltzen dira». Bigarren kargu uztean zera erran zion lehendakariari: «Sanz jauna, nik Francoren aurka borroka handia egin nuen, baina zuk jartzen dituzun oztopoak askoz handiagoak dira Francorenak baino». Sanzek, berriz: «Frankismoaren nostalgiaz hasiko ote zara orain?».

Satrustegi goizeko zazpi eta erdietan jaikitzen da egunero. Garbiketak egin, otoitz egin eta gosaldut ostean, bere lanetan murgiltzen da. Bazkalosteko siesta egin eta gero, bere lanetan segitzen du. Baita afalondoan ere, ordu bateraino. «Lanean jarraitzen dut ordu bat ere galdu gabe».



ikerketa gai. Bada, zein harreman dago euskararen eta etnografiaren artean?

Nik ez dut diferentziarik ikusten. Kulturari nik ez ditut bereizten ipuinak, dantzak eta doinuak, mito eta tradizioak, eta horiek guztiak erabiltzeko ditugun hizkuntzak. Etnologiak, etnografiak eta antropologiak hizkuntza gabe ezin dute lanik egin. Informazioa hizkuntzan baitator beti. Gizakiak kultura, fisika eta psikologia du. Eta hizkuntzak mamitzen du dena, espresioaren bidea baita. Hizkuntza beharrezko du gizakiak bere barnekoa kanporatu eta kanpotik datozkion gauzak bereganatzeko.

■ Noiz hasi zinen etnografiaren munduan?

Luzaidera joan nintzen momentu berean. Han ikusi nuen hizkuntza desberdinarekin, eta bizibide desberdinarekin gauza asko komunak genituela. Ikeritzen hasi eta lortutako gauza txikiak aldiakartxotan atera nituen. Eta handik gutxira Mitxelena gutun bat idatzi zidan. Ez nuen ezagutzen ezertarako ere. Erdaraz idatzi zidan eta *de usted* hizketan, ustez apaiz zahar bat izango nintzela. 25 urte nituen. Gutun horretan galdetzen zidan ea esan niezaiokeen herri horretan nola egiten zen: *Jainkoa, Jaungoikoa* ala *Jinkoa*. *Jinkoa* esaten zela erantzun nion.

Urte haietan bertan, meza eman eta bigarren urterako, euskaltzain urgazle egin ninduten. Nahiz eta nik ez nuen gauza berezirik egin. Lortu nuen magnetofoni bat eta berehala hasi nintzen gauzak biltzen. Hizkuntza kontuetan Orixe izan nuen aholkulari. Eta etnografiari, Barandiaran. Etnikerren sorreran (1968) jada deitu ninduen Barandiaranek.

■ Hasieran datu asko bildu zenituen. Gero sintesiak egiteari ekin zenion. Oraindik ere badituzu gauzak ateratzeko?

Bai. Horretan ari naiz orain. Baina orain lanak ateratzea oso zaila da. Datuak bildu eta gero, sintesian argia ikusteko bideko eraztun guztiak argitu behar dira, eta hori zaila da. Puzzle baten antzekoa da.

■ Hainbeste urtetan gizakia goitik behera estudiatzen, eta zer ikasi duzu?

Ezer gutxi dakidala. Zenbat eta sakonago joan, orduan eta gutxiago dakidala ikusten dut. Eta hori da pozgarria. Orain konturatu naiz zenbat dagoen ikasteko. Zoragarria da.

→ Asier Azpilikueta

«Euskararen alde lan egiteak aurkipenetan du bere saria»



● LANDER FERNANDEZ ARROIAE / ARGAZKI PRESS

JOSE MARIA SATRUSTEGIK 1969AN *FONTES LINGUA VASCONUM* eta *Cuadernos de Etnologia y Etnografia* zientzia aldizkariak sortu zituen, euskara ikertzeko bata, etnologia ikertzeko bestea.

■ Fontes-en zuzendari zara oraindik. Cuadernos-eko zuzendaritza utzi zenuen, ordea.

Bai, biak ezin nituen eraman, eta hobe da bat eramatea ongi eta ez bi gaizki. *Cuadernos* utzi nuen eramaten errazena zelako. Baina orain bide txarra darama, makal dabil. Urtekari egin dute, eta ez dakit zergatik. Makal dabil. *Fontes* ez, ordea. Behar den hainbat material daukagu, eta zenbaki bat aurreraturik daramagu. Aldizkari bat eramateko arreta handia behar da. Ezin da egon etorriko diren artikuluen zain. Zuzendariak behar ditu hariak ibili. Nik haria hartua diot *Fontes*-i, eta ez da hori egin *Cuadernos*-en. Min ematen dit.

■ Fontes atzerriko aldizkaria dela erran izan duzu.

Bai, hori hala da. Lehengo batean esaten zidan batek lotsagarria zela, berak behar zuela *Fontes*-eko artikulua bat, orain dela sei bat urtekoa, eta euskal herrian ibili dituen biblioteketan ez duela aurkitu. Eta erostera joan delarik ere, ez duela inon aurkitu, ez dutela salgai *Fontes*-en ale bat ere. Nik badakit *Fontes* ikerlanetarako dela. Eta zenbait artikulua ingelesez eta frantsesez datoz. Aldizkaria ez da herri xumearentzat. Baina gehiegi da filologia ematen den eskola guztietan harpidetza edukitzea?, Baina gero poz handia ematen dit joaten naizenean edozein txokotara, eta esaten didatenean «aizu, halako artiku-

lu hau jaso dut Suediatik, edo Japoniatik... eta *Fontes* erabiltzen dute». Horrek esan nahi du oso maila apalean gabiltzala oraindik.

■ Lan eskerga egin duzu, baina ez dizute sari askorik eman.

Ez. Baina ni ez naiz sarien bila ibili. Euskararen alde lan egiten duenak bere aurkipenetan badu bere lanaren saria. Orain, asko estimatzen da esker ona agertzea. Eta sariak jaso ez baditut ere, oniritziak asko izan ditut: Buenos Airesko Euskal Ikasketen Institutuko kide naiz, Armeniako Nazioarteko Hizkuntzaritza Akademiako ohorezko kide...

■ Kanpoan etxean baino estimu handiagoa izan dizute?

Herri txikia gara, eta elkarren arteko azpian asko daude. Baina ez dit axola horrek. Ni nago nire lanean. Baina, denbora berean, kanpora noanean harritzen naiz. Adibidez, Armeniako akademiako kide izendatu nindutenean, bost bat konferentzia eman nituen unibertsitatean, eta gelak erabat beterik zeuden eta kanpoan jendea gelditu zen. Eta halako batean, hango antropologo batek esaten dit: «Aizu, oso lan garrantzitsua egin duzu *Heriotzaren aurpegi ezkutua* liburu horretan». «Eta zuk nola dakizu?», galdetu nion. «Armenierara itzulia dugu eta», erantzun zidan. Hemen nork daki liburu hori egin dudarik? Nire liburuak ez daude liburu dendetan. Orain sari bat dator. Ongi etorri, estimatzekoa da. Baina ez balute egin, ez nuke falta sumatuko.